


HERNANIKO BENEFIZENTZIA ETXEA



MARGOLARIA: LUIS TELLERIA

- EGILEA:** Urko Apaolaza
- ITURRIAK:**
- * Hernaniko Udal Artxiboa
 - * Aguirre Sorondo, Antxon
“Hernani y los Hernaniarras. Retazos de siglos. 1997”
 - * Zapiain Karrika, David
“Gizarte kontrolaren aldaketak”. 2009
 - * Uribe-Etxeberria Flores, Arantxa
“La casa-cuna central de depósitos de Guipúzcoa en el primer tercio del siglo XX”. 2003
 - * Karitateko Alabak 123 urte Hernaniko herriaren zerbitzura ikerlana, Inmaculada ikastetxea.
- ELKARRIZKETA:**
- * Luis Telleria
 - * Maria Luisa Errazkin
 - * Laura Pacheco
 - * José Antonio Beroiz
 - * Joxan Ruiz
 - * Eulali Aranburu
 - * ... eta beste batzuk
- AZALaren MARGOLARIA:**
- * Luis Telleria
- ANTOLATZAILEA:**
- * Hernaniko San Joan Konpartsua
(2009ko Ekainaren 27a)

Hernaniko Benefizentzia etxea

Ehunka urte eta mila kontu

Hernaniko Ongintza Etxe edo Benefizentziaren jatorria jakiteko Erdi Aroko sasoira jo behar da. Erdi Aroan ohikoa zen herri askotan ospitaleak izatea. Ez dezala inork pentsa eraikin dotore eta sofistikatuak zirenik, normalean gela txiki batek osatzen zuen ospitalea, ez besterik. Bertan hartzen zituzten erromesak, bidaiaiak edo nora joan ez zekien eskaleak.

Dena den, ospitaleen inguruko aipamenak ugaritu egiten dira XVI. mendetik aurrera eta ez da kasualitatea Hernaniko ospitalearen lehenengo berria ordukoa izatea. 1529an María Lopez de Galarretak testamentua egiten du Hernaniko Santa Maria Magdalena ospitalearen alde. Santa Maria Magdalena izeneko ospitalea Kale Nagusiaren amaieran zegoen, gaur egungo Zinkoenea inguruan; goiko pisuan gaixoak hartzeko lekua zegoen eta beheran kapera txiki bat egurrezko koruarekin¹.

1586an Martin Elkano zarauztarrak Gipuzkoa osoko ospitale-sarea bisitatu zuen haien inguruko ikerketa egiteko. Antza, Probintziako agintariekin herrietako ospitaleak gutxitu nahi zituzten, besteak beste, beraietan "lapurrek" hartzen zutelako ostatu. Elkanoren txostenaren bidez jakin dezakegu nolakoak ziren orduko ospitaleak². Ospitale batzuk jaunxo noble eta aberatsek sortuak ziren, errukiaren eta laguntzaren ideia oso zabalduta baitzegoen erlijioaren eraginez; jaunxoaren etxearen aldamenean kokatzen ziren normalean. Hala ere, ospitale ugari herri kaskoan zeuden, elizatik gertu, eta udalbatzak kudeatzen zituen, hau da, herriarenak ziren. Horixe gertatzen da Irunen, Ataunen, Tolosan, Bergaran, Donostian, Zumaian eta baita Hernanin ere. Elkanok Hernaniko ospitalea bisitatu zuenean 10 ohe zituela esaten du eta berritze lanen premia duela etxea egoera kaxkarrean dagoelako.

Hernaniko Santa Maria Magdalena ospitaleak Kale Nagusiko txoko horretan iraun zuen hainbat mendez eta obra batzuk egin zizkioten XVII. mende amaieran. Bere ardura "maiordomo" batek eramatzen zuen, bai eta diru kontuak ere. 1798an maiordomoak proposamen bat egin zuen, idatzi baten bidez, ospitalearen gobernu ekonomiko eta politikoa eta bere ondasunen administratzioa "Junta" baten esku uzteko, honako hauek osatua: "*Sr. Alcalde, por tiempo que fuese, dos eclesiásticos y otros tantos vecinos concejantes acomodados, celosos y dotados de prudencia y caridad*". Maiordomo horren ustez junta batek hobeto eramango zituen diru kontuak eta ospitalearen ardurak. Hain zuzen, XIX. mendean Benefizentziako Junta egin zen ospitalearen arduradun eta gaur egun ere antzera jarraitzen du izaten patronatu baten bidez.

1849an Santa Maria Magdalena ospitalean 16 gaixo zeuden, horietatik bi hil egin ziren eta beste bi sendatu. Ospitalearen egoera gero eta kaxkarragoa zen eta horrela sumatzen da artxiboko paperetan. Esaterako, Juntak urte horietan esaten du ordura arte ospitaleak izan dituen medioak "gutxituta" eta "nahaspilatuta" daudela, horregatik, Udalerri aurrekontua igotzeko eskatzen dio gaixoak "hiltzen ez uzteko". 1864an bizilagunen komisio berezi bat sortu zen, ospitalearen kondizio negargarriak ikusita modu probisionalean hobetzen saia daitezen.

1 AGUIRRE SORONDO, Antxon: *Hernani eta hernaniarrak*, Hernaniko Udala, 1997, 96 or.

2 ZAPIRAIN KARRIKA, David: *Gizarte kontrolaren aldaketak*, Deustuko Unibertsitatea, 2009, 106 or.

1866an Jose Antonio Muruak eraikitako etxera

Ez da harritzeko bai Benefizentziako Juntak eta baita Udalak ere, atsegin handiz hartu izana Jose Antonio Muruaren ekimena. Hernaniko bizilagun honek eraikin dotore bat eginarazi zuen 1866an, San Joan eliz parrokiaren atzealdean, portalez kanpo. Honela azaltzen da Juntaren akta batean:

"Don Jose Antonio Murua, de esta vencidad, hizo presente a la Junta que ha hecho construir en el termino llamado Chanchillas de esta jurisdicción, un edificio que reune las circunstancias indispensables para un Hospital y asilo de personas ancianas y achacosas, y que su animo es cederlo a la Junta, con una porción de tierras que le sirva de huerta, siempre que ella, se preste a darle en cambio en permuta el edificio viejo que hasta ahora a servido de Hospital. La junta en vista de esta proposición tan sumamente ventajosa para todo este vecindario, ha aceptado de su parte, siempre que la excelentísima Diputación de esta provincia lo autorice".

Horrela, Agustin Jauregi parrokoak 1866an baimena eskatu zion Gasteizko Gotzainari ospitale berrira eramateko Santa Maria Magdalenenaren irudia: "asilitutako pobreakin batera", dio parrokoak. Asmoa zen ekitaldi horrek "solemnizatu" zezala ospitale berriaren irekiera. Ospitaleak hor iraun du ia mende eta erdiz eta herritar askok ezagutu izan dituzte bere barrenak. Ospitalea, Benefizentzia, miserikordi etxe, mojen eskola, kapera... eraikin, erakunde eta izen ugari bildu izan dira bere ingurumarian. 1984an gaur egun ezagutzen dugun Santa Maria Magdalena Zaharren Egoitza eraiki zen eta hortik gutxira eraitsi zen Benefizentzia zaharraren etxea.


Ia bost mendetako tradizioa eta ibilbidea izan du Hernaniko Benefizentziak herriarrei zerbitzua emanet, gutxik dute horrelako zerbait esateko aukera. Egungo Ongintza Patronatua gure arbasoen ahaleginaren ondorengoa da, eta atzean duen historia luze hori herniarrei arro erakusteko moduan dago.



Karitateko Alaben mojak

1884an iritsi ziren Karitateko Alabak Hernanira. Benefizentziako Juntarekin ados-tutakoaren arabera, mojen ordena honen zereginan izango zen ospitaleko umezurtzak, zaharrak eta gaixoak zaintzea. Eta hori egin zuten 118 urtez, baita gaur egungo Zaharren Egoitzara pasa zirenean ere, harik eta 2003an kongregazioko mojek zerbitzu hori etetea erabaki zuten arte, ahizpen adinagatik eta kopuruz moja gutxi zirelako.

Benefizentziara iritsi zirenean, Karitateko alaben kongregazioak segituan ikusi zuen eskola bat sortzeko beharra. 1890ean hasi ziren lehen alfabetizazio klaseak ematen eta 1895ean, "Familien Guraso Elkarte" sortu zenean, Udalari eskatu zitzzion aldameneko terreno batzuk uztea eskolaren eraikina jasotzeko, hain juxtua gaur egun Urumea ikastola ondoan dagoen parkingean.



1962an bost plantako edifizio berri bat egin zen pixka bat gorago, Sor Maria Go-rrotxategik zituen lur batzuetan, egungo Inmaculada ikastetxea, alegia. Hain zuen, ikastetxeak 125. urteurrena ospatu du aurten. Lehengo eskola zaharrak 1970-80ko hamarkada arte iraun zuen, egoera kaxkarra zela-eta bota zuten arte..




Ez dira gutxi buruko kofia berezia jantzita Benefizentzian ibili ziren mojak. 1930eko hamarkadan, esaterako, 12-15 bat ahizpa zeuden Benefizentiako eta eskolako lanak egi-ten. Bertan ibilitako moja asko hernaniarrak ziren eta oso ezagunak herrian: Sor Maria Miner, Sor Maria Gorrotxategi, Sor Maria Pilar Loiarte, Sor Lucía Loiarte, Sor Agustina Amonarraiz... Baino gehiago ere bazeuden, Sor Juana sukaldaria, esaterako. Sor Juanaren errezetak eta sukalde eskolak askok gogoratzen dituzte oraindik. Dena den, denetan gehien agintzen zuena Sor Patrocinio Coscujuela superiora zen.

Sor Patrocinio Coscujuela

Patrocinio Coscujuela Latorre 1915etik izan zen udal Benefizentziako Karitateko Alaben superiora eta urte mordoa egin zituen ardura horrekin etxe hartan agintzen. Batzuen esanetan "gobernadoreak baino gehiago" agintzen omen zuen eta "salbokondukoak" egiteko gaitasuna zuen kasik.

1942an, Hernaniko Udalak Adopziozko Alaba izendatu zuen Sor Patrocinio, hain zuzen Pauleko San Vicente ordenarekin urrezko ezteiak egiten zituela aitzakia hartuta. Urte horretako urrian omenaldi xume bat egin zioten Salon Cineman, eta besteak beste ospitaleko umezurtzen eta eskolako ikasle ohien emanaldiak izan ziren.



Benefizentzia etxearen barrenak

Benefizentziaren etxe printzipala eraikin dotorea zen, 300 metro koadro baino gehiagokoa. Beheko pisuaz gain, bazituen beste bi pisu eta aldamenetan bi ganbara handi ere bai. 1925-27an hainbat erreforma egin zitzaizkion, batez ere gaitz kutsagarriak zituzten gaixoak hobeto isolatzeko. Horrela, aldamenean itsatsita beste pabilioi bat eraiki zen: beheko pisuan emakumeentzako gelak eta goiko pisuan gizonezkoenak. Gainera, eraikin



nagusiak hainbat aldaketa izan zituen. Sorospen gela bat sortu zen kanpoko jendea sendatzeko, proiektuaren memoriak dioenez "Hernanin fabrika ugari daude, eta ospitaleak bisitari asko jasotzen dituenez, 'sokorro' gela moderno bat behar luke". Zenbat jende ez ote da joan geroztik Benefizentziara injekzioa hartzen!

Bestalde, mojentzako gelak, komunak, sukaldea eta beste hainbat egongela lekualdatu ziren, bai eta kapera berri bat egin. 1925eko proiektu horren helburua zen asilatuen eta baita mojen arteko banaketa duina egotea. Hala ere, barruko gelen funtzioa aldatuz joan zen garaiaren arabera.

Liburuxka hau egiteko San Joan Konpartsak bilera bat deitu zuen eta bertan herri-tarrak Benefizentziako oroitzapenen inguruan elkarritzetatu zituen; argi geratu zen herniarrek oraindik gogoan dituztela Benefizentzia etxearen detaile txikiak. Esaterako, askok gogoan zuten bazegoela egongela eder bat piano eta guzti; bertan egiten zituzten bilkurak medikuek (Santiago Sarasola, Doroteo Irigoien..). Sarreran *Santa Casa de Beneficencia* jartzen zuen letra handiz, baina urteen poderioz letrak ezkutatu egin ziren eta 1960 aldera borratu egin zituzten. Horrez gain, bazeuden portalaren barruan marmolezko bi plaka handi Benefizentziaren "ongile" izan zirenen izenekin; Madrilgo abizen ospetsuak irakur zitezkeen bertan. Oheak burnizkoak ziren eta koltxoia arta lokotxez egindakoak...

1933an mojek egindako inventario batean azaltzen denez denetarik zegoen: dekoraziorako artikuluak eta altzariak (koadroak, tapizak, pianoa, gurutzeak, eskritorioak...) asilatuentzako arropak, maindireak, oheak, josteko makinak, kandelabroak, ispiluak, lastozko aulkia, marmolezko mahaiak jantokian, sukaldeko tresna ugari...

Bizarginak, harakinak, oilategia eta ukuilua

Benefizentzia zerbitzatzeko bizargina urte askoa Felix Leibar izan zen. 1920an hasi zen eta modu informalean egiten zuen lan hori. Gero, Udalak zerbitzua enkantera atera zuen eta Fermin Martinez aritu zen zeregin horretan, gerra hasi zen arte. Ondoren Joaquin Zubeldia hasi zen ileapaintzaile lanetan; gizonak astean behin "rasuratzen" zituen eta haurrak, berriz, hilean behin.

1930eko hamarkadan haragia, ogia, arraina eta horrelakoak dendarien artean enkantera ateratzen zituen Udalak, horiek guztiak behar baitituen Benefizentziak bere asilatuentzat. Harakinen artean daude Eugenio Gorrotxategi, Manuel Azpiazu, Felix Alberdi, Teodoro Iraola... *cortadores del pueblo* izenez agertzen dira dokumentuetan. Okinak ere aski ezagunak ziren: Marcelino Berasategi, Juan Peña... Bestelako jakiez ere hornitu behar izaten zen ospitalea: ardo gorria, patata gorria, *blanquilla* azukrea, olio arrunta, babarrun txuria, lenteja...

Benefizentziak abere ugari zituen bere kargu. Oilategi luze bat zuen aldamenean eta ukuilu eder bat ere bai, behiak eta astoren batekin, Bakero baserriko Rafael zen horko morroia. Ukuilu horretan sagardoa gordetzen zuten, ura bota eta pitarra egiteko; lehenago tolarea edukitakoa zen etxe hora. Kanpoko baratza, berriz, Desiderio izeneko nafarraren esku uzten zuten mojek.

1938an ospitale militarra

1936ko gerra zibilaz apena agertzen da ezer udal artxiboan dauden Benefizentziako paperetan, "gaur egungo egoera berezia" eta horrelako esaldi anbiguo batzuk baizik

ez. Hori bai, irailean, frankistak Hernanin sartu zirenean, Benefizentziako Junta erabat eraberritu zen, gehienbat erregimenaren aldekoekin.

1937an soldadu frankistenzako ospital bezala egokitu zen eraikina. Hainbat gutun eta dokumentazio dago horren inguruan:

“...la semana pasada fue ocupado por diez y ocho soldados convalecientes el hospital habilitado para ellos en la Casa Municipal de Beneficencia, le ruega tenga la bondad de abonar las cuotas de suscripción a partir del correspondiente mes en curso....”.

Gutun honek adierazten duen bezala, herritarrek eta herriko industrialek kuota batzuk ordaintzen zituzten “borondatez” ospitala aurrera ateratzeko. Ospital militarra 1939ko uztailean itxi zen, gerra bukatu ondoren:

“Clausurado el 13 de julio pasado el hospital de soldados instalado en la Casa de Beneficencia de este ayuntamiento; la Junta que rige y gobierna acordó, en sesión de ayer, manifestar a los que como V. han contribuido al sostenimiento del hospital, todo el agradecimiento de la Autoridad militar por su generoso rasgo que tanto le enaltece”.

Gerra osteko gosea

Ez da esan beharrik, gainerako etxeetan goserik pasa bazen, Benefizentzian ere gerra zibilaren ondoren gosea izan zela protagonista. Luis Telleria hernaniarra 1950eko hamarkadan bizi izan zen Benefizentzian eta berak gogoratzen duenez sala handi bat zegoen komun bakarrarekin; alde batean adinekoek egiten zuten lo eta bestean haurrek, baina ez omen zegoen separaziorik, “bonbila bat erdian eta kito”, gerra osteko ajeak izango dira horiek.

Telleriak ondoko sagastitik sagarrak lapurtzen zituen ospitaleko zaharrei emateko, hortik atera kontuak! Baino Luis txikia ez zen konturatzen zahar haien aspaldi galdu zituztela sagar goxoari kosk egiteko hortzak eta fruta usteldu egiten zela haien tiraderan sartuta, ondorioz errieta ederrak jasotakoa da mojen partetik.


Beste batzuk gogoan dira nola Sor Maria Gorrotxategik gona doblea jazten zuen mugako alde batetik bestera lehengaia pasatzeko.

Ez ziren gutxi Benefizentziari laguntzearren euren produktu eta soberakinak bidaltzen zituzten enpresak. Tolosako Boinas Eloseguik txapelak ematen zituen urtero, horrela zioen 1915ean:

“Reverenda Madre superiora de la Casa de Beneficencia de Hernani: Siguiendo la constumbre establecida por los fundadores de esta casa, tengo el gusto de enviar a Ud, según talón adjunto, un paquete rotulado que contiene 24 boinas, para que las distribuya entre los asilados de esta Santa Casa”.

Bestalde Carrero lantegiak jantziak eta mantak erregalatzen zituen; Sor Patrocinio bera askotan azaldu izan zen Carreroko lantegian mantak eta lepokoak hartzeko. Bestalde, Carrerok Latsunben zituen hainbat terreno Benefizentziari utzi zizkion bertan artoa eta barrunak ereiteko..

Asilatu gosetuei noizbehinka extra bereziak ailegatzen zitzaizkien. Gogoangarriak izan ziren Tiburtzio Aguirre alkatea ezkondu zenean Benefizentziara bidali zituen jakiak (oilaskoak, Adarragako tarta...). Caja Munizpalak ere, Gabriel Olaizola zuzendari zen garaietan, urtero ematen zuen zer edozer, bai eta Santa Barbara soziedadeak ere.



Milagrosako kapera, don Pedro apaiza eta Martin sakristaua

Gaur egun kontzertu eta emanaldietarako egokitua dagoen Milagrosako kapera 1927an eraiki zen. Horren aurretik bazen beste kapera bat Benefizentzia etxean integratua. Baino mojek beste kapera bat eraikitzeko eskatu zuten komunitatea biltzeko hobeto izango zelako. Bide batez, lehengo kapera zaharra (eraikin nagusiaren atzealdean zegoen) garbileku eta plantxa-gela bezala erabiliko zuten. Bazeuden bi emakume arropa eta maindire guztiak garbitzeaz arduratzen zirenak eta ondoren lehortzen jartzen zuten lorategian eta oilategi parean.

Don Pedro Madinabeitiak ematen zuen meza Milagrosako kaperan. Gerra ostean frankismoko elizak errepresaliatu eta Gasteiztik Hernanira ekarri zuten Don Pedro. Gizon ja-torra zela diote ezagutu zutenek, "on puska bat" eta gazteei Luisetan asko lagundu ziela. Goizeko 7etan meza izaten zen eta Martin sakristaua arduratzen zen kanpaiak jotzeaz, azpeitiarra jaiotzez. Martin sakristaua omen zen "hango erregea" askoren esanetan, Benefizentzian logela propioa eta jatekoa baitzuen. Baino jakina, jatekoa irabazi egin behar eta kaperako santu irudiei hautsa pasa, atek ireki eta horrelakoak egiten zituen. Aste Santuan irudiak maindire batekin tapatu behar izaten zituen baita ere.

Han egoten zen Santa Maria Magdalenen irudia, neskatzek promesa baten truke egindako ile naturalezko peluka eta guzti. Magdalenen irudia Aste Santuan ateratzen

zuten prozesioan, bordatuak zituen tertzipelozko kapa dotore batekin, aspaldiko usadioa omen zen hori. Gero, urte mordo bat beranduago, ezezagun batzuek su eman zioten irudiari eta bere oroitzapena galduz joan da.

Ekitaldi eta ospakizunen bilgune

Herrian eragin handia zuen erákundea izanik, festa eta ekitaldi ugari antolatzen ziren Benefizentziarekin lotuak. Esaterako, gerra aurretik portalez kanpoko festa ofizialak Santa Magdalena ziren, uztailaren 22an ospatzen ziren eta ohikoa zen txistulari eta dantbolin joleek bertatik kalejira egitea, bai eta axeridantza ere. Baino urte batean istripu bat izan zen auto batekin eta hortxe amaitu ziren betirako jai horiek.

Dena den, beste ospakizun erlijioso nagusi ugari ere izaten ziren eta horietako batzuk segida izan dute gaur egungo Inmaculada ikastetxean. Esaterako, Milagrosa –irudia bertan dago oraindik–, San Vicente de Paul eta Santa Luisa de Marillac... San Joanelan, berriz, txarangak eta koroak joaten ziren kantura Benefizentziara, tonbola urtero ospatzen zen, Domund eguna ere sona handikoa izaten zen, Gabonetan jaiotza eder bat jartzen zen etxe atarian... “mojak beti egon ziren herriarekin” diote elkarritzetaturek.

Haurrak, espositoak eta inudeak

Gaixo, zahar eta behartsuez gain, familiek sostengatu ezin zituzten haurrak izaten ziren Benefizentzian. Inklusen eta haur espositoen historia luzea da. XVIII. mendera arte ez zen oso ohikoa haurrak abandonatzea, sasi umea izatea ez zelako gaizki ikusia. Baino XIX. mendean gizarte klaseen ohitura aldaketak zirela-eta, haur jaio berriak miserikordi etxeen ataritan edo beste lekuetan uzteko joera handitu egin zen³.

Hernanin ere hala gertatu zen eta hona adibide bat: 1828an, pertsona ezezagun batek neska jaio berri bat utzi zuen Bekoerrota baserriaren ate aurrean “trapu batean bildurik eta beste inolako arroparik gabe”. Apaizak segituan bedeinkatu zuen Ana Josefa izenarekin eta Benefizentziako Juntak baserri horretako etxeko andrearen esku uztea erabaki zuen, *mujer casada y robusta* zela zioten.

Horrelako kasuak ugaritz zohoazenez, inklusa etxeak sortu ziren Gipuzkoako zenbait lekutan, espreski abandonatutako haurrak jasotzeko. Hala ere, herrietako ospitale eta benefizentzia etxeek zerbitzu hori guztia gestionatzen laguntzen zuten, esaterako, inudeen lana gainbegiratzen. Inudeek diru baten truke beren esnea uzten zioten haurrari eta Pro-bintziako agintariek inspekcioak egiten zituzten arauak errespetatzen ziren jakiteko. 1849ko zerrenda batean azaltzen da Hernanin 23 haur espositori ematen zietela zerbitzua beste hainbeste emakumek, eta inude horien datu zehatzak azaltzen dira: alarguna ote den, zeinekin ezkondua dagoen, bizilekua, lanbidea... Horrelako eta antzeko informazioa jasotzen laguntzeko, Hernanin bazegoen *Junta de Protección a la Infancia* delako bat, eta bertako kide ziren herriko abizen ezagunetako señoritak: Bireben, Sarasqueta...

Hernaniko Benefizentzia etxeen zeuden umeak familiek kargu hartu ezin zituzten haurrak ziren, espositoak edo kajako umeak Fraisoroko sehaska-etxera joaten ziren normalki, 1903an irekiriko inklusa berezia zen hora. Gerra ostean haur mordoska zegoen Benefizentzian, baina ez gehiegi ere, horien artean zeuden telleriatarra, galianatarra...

3 URIBE-ETXEBERRIA FLORES, Arantxa: “La casa-cuna central de expósitos de Guipúzcoa en el primer tercio del siglo XX”, in DAVILA BALSCERA, P. (koord.): *Enseñanza y educación en el País Vasco*, Erein, Donostia, 2003.

Antonio Usarraga eta bere karroa

Santa Maria Magdalena misericordi etxearen edo Benefizentziaren herrian aski ezaguna zen jendea bizi zen. Horietan ezagunenetakoia izango da seguruena Antonio Usarraga, eta are ezagunagoa bera ibiltzen zen karroa. Antonio elbarri zegoen eta horregatik hainbat karro berezitan ibili behar izaten zen; bada, karro horiek egiteko herri erdia mobilizatzen zen –orduan ez baitzegoen oraingo silla modernorik–, eta beste erdia Antonio txandaka karroan paseatzeko. Hori baino ekimen herrikoiagorik! Izan ere, pertsona atsegina eta maitagarria zen: "Gazte guztiak geratzen ziren berarekin hizketan zer moduz zegoen jakiteko" esaten dute.

Antonio Usarragaren karroa muntatzea benetako ingeniaritza lana zen. Luis Telleria akorduan da lehenengo karroa berak eta Angel Jimenok egin ziotela: "Zailena gurpilarri erradioa ematea zen" dio. Kontua da karro estua nahi zuela ateetatik sartu ahal izateko, eta antza, herriko kaleetan zehar sekulako erakustaldiak egiten zituen abiada izugarrian; horietako batean, Benefizentziara zihotza, erori eta karroa izorratu zuen. Jakina, ez zen denbora asko pasatu behar izan herritarrek beste bat egin zioten arte... Horretarako eta dirua lortzeko, 1972ko urtarrilaren 23an futbol partidu bat antolatu zen.



Antonio Usarraga 1984ko Abenduaren 30ean hil zen (62 urterekin), baina askoren memorian dago oraindik; herri parte hartzaile baten sinboloa dira bera eta bere karroak.

1918: bantzanga Hernanin


Hernaniko historiaren pasarte zirraragarri eta aldi berean ezezagunenetako bat 1918ko apirilaren 2an gertatu zen. Orduko hartan bantzanga gaitzaren hainbat kasu azaldu ziren Lasarte eta Hernani ingurueta. Gipuzkoako Gobernadoreak segituan ekin zion gaitza kontrolatzeko kanpainari, hainbat neurri hartuz. Badirudi gaitza hipodromo ingurueta sortu zela, horregatik Lasarteko herritarrei, jokcey-ei eta ukuiluetako langileei txertoa jartzea era-baki zuen. Neurri horien artean zegoen gaixoturiko zazpi pertsona Lasartetik Hernaniko Benefizentziara pasatzea, antza, gure herriko ospitalean hobeto isolaturik egongo zirelakoan. Horrek sortu zuen iskanbila.

Hernanin ez zen lehenengo aldia bantzanga zibilela eta herritarra ikaraturik zeuden gaitz madarikatuarekin. Udalak bilkura egin zuen eta ministro nahiz gobernadoreei gai-xoak Hernanira ez eramateko eskatu zieten. Baino kasurik ez. Horrela, apirilaren 2an, Lasartetik Hernanirako bide guztiak barrikadaz josi zituzten hernaniarrek, eta guardia zibilei aurre egin zieten Zinkoenea inguruau, horrela kontatzen zuen prentsak pasatutakoa: “*Con carros, barricadas, tablones y otros artefactos cerraron el paso de las calles y de la carretera de San Sebastian, colocándose detrás las mujeres y niños que al ver acercarse el coche sanitario prorrompieron con gritos de protesta, mientras las campanas de la torre tocaban a rebato*”. Benefizentziari berari su emateko zorian izan ziren: “*Se dijo que algunos vecinos, con el afán de evitar la entrada de los enfermos pretendieron incendiar el hospital y que la Rda. Madre Superiora del beneficio establecimiento llamó al señor Gobernador para pedirle auxilio*” (El Diario Vasco, 1918-04-03).

Ikusten denez, hamaika pasatakoa da Benefizentzia. Hala ere, zorionez, egoerak ez zuen okerrera egin, agintariek gaixoak berriz ere Lasartera itzularazi zituztelako; herri harako pabiloi batean geratu ziren. Dena den, gertaera honetan badaude protagonista nagusi batzuk: emakumeak. Emakumeak izan ziren aurre egin zietenak guardia zibilei, beraiek atera ziren kalera eta haien protestarengatik ez zituzten bantzangadunak Benefizentzian sartu. Horren harira, badaude bertso batzuk Josefa Zubeldia *barbaxenekoak* euskara ederrean jarriak. Hernaniko emakumeen adore eta indarraren isla dira bertso horiek, eta ber-tsolaritzaren antologiara pasatu dira duten esanahiagatik. Hona bertso sorta horren bi ale:

Mikela ta Axentxi
¡Pareja fuertia!
Ayek aurren zirala
Fiñ giñan jendia
Zarrak eta gaztiak
Nexkatx ta andriak
Andre txit aberatzak
Baitaere pobriak.

Lana egin genduban
Kupira audi gabe
Senarrak usirikan
Baskayrik gabe
Ustuta petroleos
Ospitala yursi
Aguro erretzeko
Kristal danak ausi.



LA CASA DE BENEFICENCIA DE HERNANI

Para indagar en el origen de la Casa de Beneficencia del pueblo de Hernani tenemos que remitirnos a la Edad Media, en esta época era muy común que todos los pueblos tuvieran su propio hospital. Estos hospitales no eran edificios elegantes y sofisticados como cabe esperar, sino que contaban con un simple habitáculo. En ellos, no sólo recogían a los peregrinos, sino también a los viajeros y a aquellos mendigos que no tenían a donde ir.

La primera reseña que tenemos sobre el hospital de la villa de Hernani se remonta al Siglo XVI. En 1529 Doña María López de Galarreta deja su testamento a favor del hospital de la localidad "Hospital Sta. María Magdalena". Este antiguo hospital estaba situado en lo que hoy en día es Zinkoenea, al final de la calle Mayor. El edificio constaba de dos plantas, en el piso superior estaban los enfermos y en el bajo la capilla con un hermoso coro de madera¹.

En 1586 el zaraúztarra Don Martín Elkano es el encargado de realizar un estudio del estado en el que se encontraban los hospitales de Guipúzcoa ordenado por el mandatario provincial. Querían estudiar la situación de estos edificios para cerrar algunos, pues en aquellos años, muchos ladrones los utilizaban como hostales. De la información recogida por el señor Elkano podemos saber cómo eran los hospitales en esos años². Algunos habían sido construidos por señores nobles y ricos que los edificaban al lado de sus palacetes. También existían muchos hospitales en los círculos antiguos de los pueblos, así es el caso de Irún, Ataun, Tolosa, Bergara, Donostia, Zumaia y también en Hernani. Sobre el hospital de Hernani dejó escrito que constaba de diez habitaciones, y que estaba en muy mal estado de conservación. Situado en Zinkoenea permaneció durante varios siglos, y fue restaurado a finales del siglo XVII.

El encargado del hospital era un mayordomo que cierto día de 1798 escribió una propuesta al ayuntamiento mediante una carta, en la que pedía que formaran una Junta que se hiciera cargo del hospital, en ella se puede leer:

"Señor alcalde, por tiempo que fuese, dos eclesiásticos y otros tantos vecinos concejantes acomodados, celosos y dotados de prudencia y caridad".

Este mayordomo pensaba que sería más acertada la idea de que fuera una Junta la encargada del hospital y de sus cuentas. Así fue. En el siglo XIX se formó dicha Junta, y es así como todavía se mantiene, mediante un patronato.

En 1849 en el hospital Sta. María Magdalena se encontraban 16 enfermos, de los cuales, dos murieron y otros dos se curaron. La situación del hospital cada vez era peor. Por este motivo pidieron al ayuntamiento que aumente las ayudas para no dejar morir a los enfermos, mientras estas ayudas llegan, son los vecinos los que económicamente ayudan a mejorar esa situación insostenible

1 AGUIRRE SORONDO, Antxon: *Hernani eta hernaniarrak*, Hernaniko Udala, 1997, 96 or.

2 ZAPIRAIN KARRIKA, David: *Gizarte kontrolaren aldaketak*, Deustuko Unibertsitatea, 2009, 106 or.

La casa construida por José Antonio Murua en 1866

No es de extrañar que tanto el ayuntamiento como la Casa de Beneficencia aco-
gieran con agrado la decisión del Señor Murua de construir un elegante edificio en la parte
trasera de la parroquia, en fuera portales.

Así se recoge en un Acta de la Junta de 1866:

"Don José Antonio Murua, de esta vecindad, hizo presente a la Junta que ha hecho cons-
truir en el término llamado Chanchillas de esta jurisdicción, un edificio que reúne las cir-
cunstancias indispensables para un Hospital y asilo de personas ancianas y achacosas, y
que su ánimo en cederlo a la Junta, con una porción de tierras que le sirva de huerta, siem-
pre que ella, se preste a darle en cambio en permuta el edificio viejo que hasta ahora a
servido de Hospital. La junta en vista de esta proposición tan sumamente ventajosa para
todo este vecindario, ha aceptado de su parte, siempre que la excelentísima Diputación de
esta provincia lo autorice".

De ese modo, el párroco Don Agustín Jauregi pide permiso al obispado de Gas-
teiz para que este nuevo edificio pueda llevar la imagen de Sta. María Magdalena, y así lla-
marse en adelante. Este nuevo hospital ha permanecido en este lugar durante siglo y
medio, y ha sido denominado de muchas maneras distintas, Hospital, Beneficencia, Casa
de Misericordia, Escuela de las Monjas, Capilla...



En 1984 se construyó el nuevo edificio de la Residencia de Ancianos Sta. María Magdalena de Hernani, lo que hoy conocemos.

Han sido más de cinco siglos de andadura y de tradición, dando servicio a tantos y tantas vecinas de Hernani. La Residencia de ancianos que hoy tenemos es el fruto del trabajo de nuestros antepasados, y es orgullo del pueblo poder enseñar a sus vecinos la larga historia que ésta guarda.

Hijas de Caridad

El 29 de abril de 1884 llegan las primeras Hijas de la Caridad a Hernani, su misión era la de cuidar a los enfermos, ancianos y huérfanos del pueblo. Fue eso lo que hicieron durante 118 años, hasta que en el 2003 la Congregación decidiera terminar con este servicio.




Una vez instaladas en el pueblo, enseguida se dieron cuenta que, Hernani no sólo necesitaba asistencia hospitalaria, sino que también había una gran demanda de alfabetización entre la juventud hernaniarra, y así paralelamente con el hospital, comenzaron una nueva obra, la escuela. En 1895 se forma una Asociación de Padres que pide al ayuntamiento unos terrenos próximos a la Beneficencia para construir un grupo escolar (hoy en día parking junto a la Capilla de la Milagrosa).

La falta de sitio, debido a la gran demanda de clases, hizo que en 1962 construyeran un nuevo edificio de cinco plantas en los terrenos de la Hernaniarra e Hija de la Caridad Sor María Gorrotxategi.

En 1975 volvieron a construir otro edificio que completaba al anterior, hoy en día, La Inmaculada Ikastetxea.

El primer edificio, el antiguo, construido seguido a la Beneficencia, fue derrumbado en la década de los 70, debido a su mal estado de conservación.

Han sido muchas las Hijas de la Caridad que han dejado huella en nuestro pueblo, por ejemplo, en 1930 eran de 12 a 15 las hermanas que residían aquí. Muchas de estas eran y son hernaniarras: Sor María Miner, Sor María Gorrotxategi, Sor María Pilar



Loiarte, Sor Lucía Loiarte, Sor Agustina Amonarraiz..., pero tampoco nos podemos olvidar de Sor Juana, la cocinera, que enseñó a muchas mujeres a cocinar y que preparaba deliciosas recetas, ó de Sor Patrocinio, que fue durante muchos años la superiora, o de Sor María Gorroxategi que fue la siguiente superiora... o de otras tantas han pasado su vida entera en Hernani: Sor Irene Turienzo, Sor María Luisa Iraragorri... y otras tantas que aún dedican su tiempo al colegio y a las necesidades especiales del pueblo, Cáritas, visitas a la cárcel...



Sor Patrocinio Coscujuela

Sor Patrocinio Coscujuela fue la superiora de la Beneficencia en el año 1915, es recordada por muchos hernaniaras que dicen de ella *que tenía más poder y mando que el propio gobernador.*

En 1942 fue adoptada como hija predilecta por el ayuntamiento de Hernani, en un homenaje en el cine Salón en el que actuaron los huérfanos de la Beneficencia, así como alumnos y ex alumnos del colegio.



La Casa de Beneficencia

El edificio principal de la Beneficencia era una construcción elegante con más de trescientos metros cuadrados. Además del piso bajo tenía también dos pisos superiores y dos trasteros muy hermosos. En los años 1925-27 se reformó, sobre todo, para poder aislar mejor a las personas con enfermedades contagiosas. De esta manera, se construyó un edificio seguido del que ya se tenía: en el bajo con habitaciones para las mujeres, y en el piso superior para los hombres. El edificio principal también fue reformado, construyendo un espacio para atender a las personas que venían del pueblo y a los trabajadores de las nuevas fábricas. Según dice el proyecto de aquella época:

"en Hernani existen muchas fábricas, y debido a que el hospital recibe muchas visitas exteriores necesitaríamos una consulta para atender a estas personas"

¿Quién no recuerda haber ido a la Beneficencia a ponerse alguna inyección?

Aparte las hermanas contaban con sus habitaciones, baños, la cocina y una capilla.

Para poder realizar esta recogida de datos La comparsa de San Juan se reunió con otros tantos hernaniaras para recoger el testimonio de muchos de ellos. Se habló sobre la

Beneficencia y de los recuerdos, que aún tiene muchos de ella. Muchos recordaban una hermosa habitación con su piano y todo; allí se reunían los médicos (Santiago Sarasola, Doroteo Irigoién...). En la entrada existía un letrero que decía: *Santa Casa de Beneficencia*, éste se fue borrando con el tiempo; también había unas placas en la entrada con el nombre de todos los benefactores, muchos de ellos apellidos importantes de aquella época. Las camas eran de hierro, y los colchones estaban hechos de mazorcas de maíz...

Según un inventario realizado por las hermanas en 1933 en la casa existían artículos de decoración y muebles (cuadros, tapices, piano, cruces, escritorios...) ropas, sábanas, camas, máquinas de coser, candelabros, espejos, sillas de paja, mesas de mármol para comer, utensilios de cocina.

Barberos, Carniceros, Gallineros y Cuadra

El barbero que servía en la Beneficencia fue Félix Leibar durante muchos años. Comenzó con esta labor en 1920 y trabajaba de forma informal. Después, el Ayuntamiento subastó el servicio y fue Fermín Martínez el que siguió con el trabajo. Después fue Joaquín Zubeldia el que empezó a modo de peluquero. Este, rasuraba a los hombres una vez a la semana y a los niños una vez al mes.

En la década de los 30, el Ayuntamiento también subastó entre los tenderos el servicio de abastecimiento de los productos de primera necesidad que necesitaban para los asilados de la Beneficencia como eran la carne, el pan, el pescado y varios productos de este tipo. Entre los carniceros destacan los llamados "cortadores del pueblo" que eran entre otros, Eugenio Gorrotxategi, Manuel Azpiazu, Félix Alberdi, Teodoro Iraola etc. Los panaderos también eran muy conocidos: Marcelino Berasategi, Juan Peña... Pero además de los productos mencionados, también había que abastecer al hospital con otros diversos productos: vino tinto, patata roja, azúcar "blanquilla", aceite corriente, alubia blanca, lentejas...

La Beneficencia tenía muchos animales a su cargo. Había un gallinero al lado y una hermosa cuadra con vacas y algún burro. Rafael del caserío "Bakero" era el mozo encargado de todo aquello. En esa cuadra se guardaba la sidra y se hacía la pitarra ya que la casa había tenido antiguamente un "tolare". Las monjas dejaban a cargo de la huerta al navarro Desiderio.

Hospital Militar –1938–

Pocas son las citas referentes a la guerra civil de 1936 que se pueden encontrar en los documentos sobre la Beneficencia que hay en los archivos municipales. Solo se pueden leer frases como "la especial situación que vivimos hoy en día" y otras de igual ambigüedad. Eso sí, cuando en septiembre los franquistas entraron en Hernani, la Junta de la Beneficencia se renovó completamente, reuniendo entre sus miembros, sobre todo, a gente partidaria al régimen.

En 1937, se acondicionó el edificio para que sirviera como hospital para soldados franquistas. Hay varias cartas y documentación sobre esto:

"... la semana pasada fue ocupado por diez y ocho soldados convalecientes el hospital habilitado para ellos en la Casa Municipal de Beneficencia, le ruega tenga la bondad de abonar las cuotas de suscripción a partir del correspondiente mes en curso..."

Como da a entender esta carta, los habitantes y las industrias del pueblo pagaban unas cuotas “voluntarias” para sacar adelante el hospital. El hospital militar se cerró en julio de 1939, cuando acabó la guerra:

“Clausurado el 13 de julio pasado el hospital de soldados instalado en la Casa de Beneficencia de este ayuntamiento; la Junta que rige y gobierna acordó, en sesión de ayer, manifestar a los que como V. han contribuido al sostenimiento del hospital, todo el agradecimiento de la Autoridad militar por su generoso rasgo que tanto le enaltece”.

Hambre en la Postguerra

Si en el resto de hogares se pasó hambre, también fue protagonista la hambruna en la Beneficencia tras la Guerra Civil. Luis Tellería, hernaniarra nacido en 1950, vivió en la Beneficencia y recuerda que existía una sala con un único baño; a un lado dormía la gente mayor y al otro lado los niños, pero no había separación alguna, “una bombilla en el centro nada más”, situación a padecer durante la posguerra, suponemos.

Tellería solía robar manzanas del terreno contiguo para darles a los ancianos del hospital, ahí queda eso! Pero el pequeño Luis no se daba cuenta de que aquellos ancianos hacía años que habían perdido los dientes con los que morder y, la fruta se les pudría en sus tiraderas por lo que recibía regañinas de las monjas.

Otros recuerdan como Sor María Gorrotxategi solía vestir una doble falda para pasar materia prima al otro lado de la frontera.

No eran pocas las empresas que, por ayudar, enviaban sus productos o sobras a la Beneficencia. Boinas Elosegi de Tolosa mandaba boinas todos los años, así lo decía en 1915:

“Reverenda Madre superiora de la Casa de Beneficencia de Hernani: Siguiendo la costumbre establecida por los fundadores de esta casa, tengo el gusto de enviar a Ud, según talón adjunto, un paquete rotulado que contiene 24 boinas, para que las distribuya entre los asilados de esta Santa Casa”.

Por otro lado, la fábrica de Carrero, regalaba ropa y mantas; Sor Patrocinio solía aparecer por la fábrica de Carrero a recoger mantas y pañuelos para el cuello. También dejó algunos terrenos de Latsunbe para la Beneficencia, para así poder plantar maíz y alubias.

A veces les llegaban unos extras a los hambrientos de la Beneficencia. Cabe recordar los alimentos que el alcalde Tiburcio Agirre envió a la Beneficencia cuando se casó: 8 pollos, tarta de Adarraga...). La Caja Municipal, siendo Gabriel Olaizola director, siempre daba algo y, la sociedad Santa Bárbara también.

Capilla de la Milagrosa, El Cura Don Pedro y el Sacristán Martín

La capilla de La Milagrosa que hoy día se utiliza para dar conciertos, fue construida en 1927. Antes de esta, existía otra capilla integrada en la Beneficencia. Sin embargo las monjas pidieron la construcción de otra porque pensaron que era más apropiado para que la comunidad se reuniera. Así, la capilla antigua, que estaba en la parte trasera del edificio principal, la utilizarían como cuarto de la plancha. Había dos mujeres encargadas de limpiar toda la ropa y las sábanas y después lo colgaban en el jardín y frente al gallinero.



Don Pedro Madinabeitia era el encargado de dar la misa en la capilla de La Milagrosa. Trajeron a Don Pedro desde Vitoria tras la guerra y como represión de la iglesia franquista. Los que le conocieron dicen que era una buena persona, "un pedazo de pan". Ayudó a los jóvenes en lujes. Solía haber misa a las 7 de la mañana y Martín el sacristán, nacido en Azpeitia, era el encargado de tocar las campanas. Martín era según muchos el rey, porque tenía habitación propia y también comida. Pero claro, tenía que ganarse el pan y para ello les quitaba el polvo a todas las figuras de santos, abría las puertas y ese tipo de cosas. También tapaba las figuras de los santos con una sábana durante la Semana Santa.

Allí solía estar la imagen de María Magdalena, con pelo natural hecho por las jóvenes, a cambio de una promesa. Solían sacar la imagen de María Magdalena durante la procesión de Semana Santa, con una capa de terciopelo con bordados como era tradición. Después de muchos años, unos desconocidos le dieron fuego a la figura y su recuerdo se ha ido perdiendo.

Centro de Actividades y Celebraciones

Teniendo en cuenta la influencia de la institución en el pueblo muchas de las actividades y fiestas organizadas iban unidas a la Beneficencia, como por ejemplo, en tiempos anteriores a la Guerra Civil la axeridantz o las fiestas oficiales de Sta Magdalena el 22 de julio, que se celebraban en "Fueraportales" con txistularis y damborileros, "kalejira" ... Pero, un año, durante la celebración de la fiesta hubo un accidente en el que se vió involucrado un coche y así se convirtieron en las últimas fiestas oficiales de "Magdalenas".

Pese a esto, había numerosas e importantes celebraciones religiosas y algunas de ellas han llegado hasta nuestros días gracias a la continuidad que se les ha dado desde el Colegio La Inmaculada; algunas como "La Milagrosa" –imagen que hoy se encuentra en el Colegio–, San Vicente de Paul, Sta. Luisa de Marillac.

En las fiestas patronales de San Juan las charangas y coros iban a cantar a la Beneficencia, cada año se organizaba la "Tómbola de la Caridad", la campaña del Domund también tenía mucha repercusión en Hernani. En Navidad, en la entrada de la Casa se ponía un hermoso y precioso nacimiento... según cuentan los entrevistados "las monjas siempre han estado con el pueblo".



Niños Expósitos y Ayas

Además de enfermos, ancianos y pobres, los niños que no podían criarse con sus familias y eran abandonados, los atendían en la Beneficencia. La historia de las inclusas y de los niños expósitos es muy extensa. Hasta el s. XVIII no era común abandonar niños ya que ser hijo ilegítimo no estaba mal visto en la sociedad. Pero durante el s. XIX cambian las costumbres de las diferentes clases sociales y comenzaron a abandonar a los recién nacidos en las puertas de las Casas de Misericordia y en otros lugares³.

Así también ocurrió en Hernani. Por ejemplo, en 1828 alguien dejó un bebé, desnudo pero envuelto en un trapo, en la puerta del caserío Bekoerrotta. El sacerdote lo bautizó de inmediato con el nombre de Ana Josefa y la Junta de la Beneficencia decidió dejarlo al cuidado de la "mujer casada y robusta etxekoandre" del caserío.

Como los casos de abandono iban aumentando se crearon las inclusas, en diferentes lugares de Guipuzcoa y su función consistía exactamente en recoger niños abandonados. De todas formas, los hospitales, locales y Casas de Beneficencia ayudaron a gestionarlas como en el caso de la supervisión del trabajo de las ayas.

Estas ayas daban su leche a estos niños a cambio de algo de dinero y la Inspección Provincial por su parte supervisaba las normas establecidas al respecto y su cumplimiento.

En una lista de 1849 se explica que en Hernani se daba servicio a 23 niños expósitos así como el nombre y datos concretos (si son casadas, viudas, domicilio, profesión,...) de otras tantas mujeres o ayas.

³ URIBE-ETXEBERRIA FLORES, Arantxa: "La casa-cuna central de expósitos de Guipúzcoa en el primer tercio del siglo XX", in DAVILA BALSERA, P. (koord.): *Enseñanza y educación en el País Vasco*, Erein, Donostia, 2003.

Para poder recoger este tipo de datos en Hernani contaban con la ayuda de la "Junta de Protección a la Infancia" de la cual formaban parte señoritas "Bireben, Sarasqueta) de Hernani de apellido conocido en el pueblo.


Los niños que vivían en la Casa de la Beneficencia eran aquellos de los cuales no podían hacerse cargo familias del pueblo, expósitos o niños de caja, los cuales normalmente eran llevados a la casa-cuna de Fraisoro; esta casa-cuna fue una inclusa especial creada en 1903.

Tras la guerra había un número considerable de niños en la Beneficencia, pero tampoco demasiados, entre ellos se encontraban los Tellería, los Galiana...

Antonio Usarraga y su carro

En la casa de Beneficencia o Casa de Misericordia Santa María Magdalena, vivía gente sobradamente conocida del pueblo. Seguramente, Antonio Usarraga sea uno de los más conocidos, y mucho más conocido aún su carro. Debido a su invalidez, andaba en carros diferentes. La gente del pueblo solía colaborar en la fabricación de dichos carros, puesto que en aquella época, no se fabricaban. Además, paseaban con él. Era una persona agradable y muy querida: "La juventud solía hablar con él, preocupándose por su estado" recuerdan.

Montar el carro de Antonio Usarraga era una auténtica obra de ingeniería. Luis Tellería recuerda que él, y su amigo Ángel Jimeno, realizaron el primero: "Lo más difícil era dar el radio a la rueda". Además, él necesitaba un carro estrecho para poder acceder por puertas estrechas. Un día, yendo a la Beneficencia, se cayó y se le rompió el carro. Por supuesto, no pasó mucho tiempo en realizarse el siguiente carro. A tal fin y para conseguir el dinero suficiente se organizó un partido de fútbol el día 23 de enero de 1972.





Antonio Usarraga falleció el día 30 de diciembre de 1984 a los 62 años, pero todavía es muy presente su recuerdo; son símbolo del pueblo él y su carro.

1918 : La Viruela en Hernani

Uno de los episodios más conocidos y a la vez dramáticos de Hernani ocurrió el 2 de abril de 1918. En aquel tiempo, aparecieron algunos casos de esta enfermedad en Lasarte y Hernani. Los gobernadores guipuzcoanos tomaron las medidas sanitarias necesarias para controlarlo. Parece ser que el origen estaba por los alrededores del hipódromo, por lo que se puso una vacuna especial a los habitantes de la zona. Una de las medidas acordadas fue la de trasladar a siete enfermos a la casa de la Beneficencia. Eso es lo que produjo un gran escándalo.

El ayuntamiento, en una sesión especial, pidió a los gobernadores que no volvieran a traer enfermos al pueblo. Pero ni caso. Por ello, aquel ya famoso día, los vecinos hicieron barricadas entre Lasarte y Hernani, además de hacer frente a la Guardia Civil en Zinkoenea. La prensa decía así:

"Con carros, barricas, tablones y otros artefactos cerraron el paso de las calles y de la carretera de San Sebastián, colocándose detrás las mujeres y niños que al ver acercarse el coche sanitario prorrompieron con gritos de protesta, mientras las campanas de la torre tocaban el rebato".

Incluso estuvieron a punto de dar fuego a la Casa de Beneficencia:

"Se dijo que algunos vecinos, con el afán de evitar la entrada de los enfermos pretendieron incendiar el hospital y que la Rda. Madre Superiora del beneficio establecimiento llamó al señor Gobernador para pedirle auxilio" (El Diario Vasco, 1918-04-03).

Al parecer, la situación no empeoró, puesto que los enfermos se quedaron en Lasaute, en un pabellón de dicho pueblo. De todas formas, en esta historia hay unas protagonistas importantes: las mujeres. Ellas son las que hicieron frente a la Guardia Civil y las primeras en defender la Casa de la Beneficencia.

Mikela ta Axentxi
¡Pareja fuertia!
Ayek aurren zirala
Fiñ giñan jendia
Zarrak eta gaztiak
Nexkatx ta andriak
Andre txit aberatzak
Baitaere pobriak.


Lana egin genduban
Kupira audi gabe
Senarrak usirikan
Baskayrik gabe
Ustuta petroleos
Ospitala yursi
Aguro erretzeko
Kristal danak ausi.



ORONA

Iogailuak
Eskailera Mekanikoak
Egitura Espazialak

Orona Koop. Elk.
Lastaola Industrialdea. 20120 Hernani
Tel.: 943551400 - Telefaxa: 943550047



Hernaniko Udala




Kardaberaz, 60 - HERNANI - Tf. 943554312

Aseguruak
Fiskala
Laborala
Juridikoa
Kontabilitatea



Cardaveraz, 68
20120 HERNANI
Tels. 943551494 - 943551912
Fax 943551130



aker
Taberna
zapa kalea 7 HERNANI



OINDI
taberna

NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

PUTZUETA
HARATEGIA - URDAITEGIA

Aita Kardaberaz Kalea, 39
Tel.: 943 552 787
HERNANI

ELECTRODOMESTICOS
ANEXO
ETXETRESNAK
Izpizua, 21
Tel. 943550381 - Faxa 943335907
HERNANI
Juan Bautista Erro, 2
Tel. 943591558
ANDOAIN

www.zitu.net
zitu@zitu.net



Antziola, 2 - 20120 Hernani
Tel. 943 338 843



LAN AHOLKULARITZA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASEGURUAK. INBERTSIOAK

Juan de Urbieta, 15 - HERNANI
Tel. 943 331 267 - Faxa 943 330 892
Harriberri, 9 - ALTZA (Donostia)
Tel. 943 352 794 - Faxa 943 353 379

**Carrocerías
KEPA, s.l.**
Chapa y Pintura
Bancada Universal
Cabina Horno

B.º de la Florida, 56
2^a Planta, Local 33
Tel. 943 550 404
20120 HERNANI

